

**Papergintza**

# **HIZTEGIA**



KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa  
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:

**<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>**

Argitaraldia:	I.a, 2012ko azaroa
Ale-kopurua:	1.500 ale
© argitaraldi honena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	<a href="http://www.euskara.euskadi.net/euskalterm">www.euskara.euskadi.net/euskalterm</a>
Inprimaketa:	XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
ISBN:	XXXXXXXXXXXXXX
Lege gordailua:	XXXXXXXXXX

## HITZAURREA

**H**Izkuntza EROSO eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, baliabide eta tresna egokiak beharrezkoak dira, eta eginkizun horretan leku garrantzitsua betetzen dute hiztegiek. Hizkuntzak etengabe aldatzen dira bizirik badaude, garai eta behar berrieta egokitzeko, eta, horrenbestez, hizkuntza baten modernizazioaren eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa etengabe elikatu behar da, hizkuntza bera normalizatzeko batetik eta erabiltzaileen beharrei erantzuteko bestetik. Horregatik, helburu horri jarraituta argitaratzen dugu eskuartean duzun hiztegi hau, zalantzarik gabe, euskararen erabilera erraztuko duena.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, corpus-plangintzari eta euskararen kalitateari dagokienez, Hiztegi Batua amaitu eta argitaratzea, eta datozen urteotarako terminologia-lanaren planginta egitea agindu zuen (EBPN VI.3.3.a).

Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) EBPNk agindutakoa gauzatzeko, hainbat ekimen jarri zuen martxan: batetik, “EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa” sortu zuen 2001ean; bestetik, Terminologia Batzordea era-tu zuen Euskararen Aholku Batzordearen barruan.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produzioaren, ku-deaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera egunerautu eta elikatzen da, beti ere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planak jarraituz.

Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPEkin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko. Terminologia Batzordeari dagokio, bestalde, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egin, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea eta abar.

Lan horren guztiaren emaitza da eskuartean duzuen hiztegi hau. Hiztegia jorratzen duen eremuko erabiltzaileen premiak asetze-ko baliagarri izatea nahi genuke, bai eta gure hizkuntzaren normalizazio eta eguneraketaren bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzen animatzen zaituztegu guztiok, euskaldunok lexiko gero eta aberatsagoa izan dezagun gure eguneroko bizitzan ere.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 1a

**Lourdes Auzmendi Ayerbe**  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([www.euskara.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.net/euskalterm)) eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzairekin (HPS) izenpetutako kontratuuen barruan. Kontratuok HPSk eta IVAPek finantzatu dituzte, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenen bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa.

Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzordeak<sup>1</sup> euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengo, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da.

Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

---

<sup>1</sup> 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16ko, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa

### **Hiztegian erabilitako ponderazio-markak:**

- (4) Termino normalizatua / gomendatua
- (3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegian erabilitako laburzapenak:

**eu** euskara

**es** español

**fr** français

**en** english

**Sin.** sinonimoa

**Ik.** ikus

## **NORMALIZAZIOA**

### **BATZORDE TEKNIKOA**

**Naiara Yuste** (Politeknika Ikastegia Txorierri)

**Ines Berasategi** (Tolosako Paper Eskola)

**Begoña Arrate** (UZEI)

Koordinatzailea: **Jone Agirrekoiko** (HPS)

### **TERMINOLOGIA BATZORDEA**

**Lourdes Auzmendi Ayerbe**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

**Mª Encarnacion Echazarra Huguet**, IVAPeko zuzendari nagusia

**Ivan Igartua Ugarte**, EABko idazkaria

**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetako ordezkaria

**Maite Imaz Leunda**, IVAPeko ordezkaria

**Andoni Sagarna Izagirre**, Euskaltzaindiaren ordezkaria

**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkaria

**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua

**Alberto Atxabal Rada**, aditua

**Joseba Erkizia Itoitz**, aditua

**Miel Loinaz Beristain**, aditua

**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua

**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua

## **UZEIren LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK**

**Ines Berasategi.** Tolosako Paper Eskola

**Jone Irastorza.** Tolosako Paper Eskola

**Naiara Yuste.** Txorierriko Eskolako irakaslea, ingurumenaren  
arloan aditua

**Paco Ceña.** Tolosako Paper Eskola

## **EREMU - ZUHAITZA**

---

- 1 Papergintzako lehengaiak**
- 2 Oregintza**
- 3 Papergintza**
- 4 Paper- eta kartoi-motak eta ezaugarriak**
- 5 Ingurumena errespetatzeko neurriak**

## AURKIBIDEA

---

<b>Bokabularioa sailka . . . . .</b>	11
1. Papergintzako lehengaiak . . . . .	12
2. Oregintza . . . . .	15
3. Papergintza . . . . .	23
4. Paper- eta kartoi-motak eta ezaugarriak . . . . .	35
5. Ingurumena errespetatzeko neurriak . . . . .	45
<b>Euskarazko aurkibidea . . . . .</b>	47
<b>Gaztelaniazko aurkibidea . . . . .</b>	55
<b>Frantsesezko aurkibidea . . . . .</b>	63
<b>Ingelesezko aurkibidea . . . . .</b>	71
<b>Erreferentzia bibliografikoak . . . . .</b>	79

# **BOKABULARIOA SAILKA**

## I. PAPERGINTZAKO LEHENGAIAK

1

### **aglutinatziale (4)**

Iztukatze-eragiketetan osagai guztiak elkarrekin ondo nahasteko eta itsasteko gaitasuna ematen duen osagarria.

**es** ligante; aglutinante

**fr** liant; gangue

**en** binder; bonding agent

2

### **almidoi (4)**

Hainbat landaretatik ateratzen den gluzidoa. Likido bero batean sartuz gero, hazi egiten da, eta, beraz, lodigarria da.

**es** almidón

**fr** amidon

**en** starch

3

### **alumina (4)**

Papergileen artean aluminio sulfatoaren hainbat kalitate adierazten dituen izena.

**es** álumina

**fr** alum

**en** alum

4

### **antrakinona (4)**

Antrazenoaren oxidazioetik sortutako produktua; sulfonazioz lortutako azido antrakinonsulfonikoen bidez koloragarriak eta pigmentuak egiteko erabiltzen da.

**es** antraquinona

**fr** anthraquinone

**en** anthraquinone

5

### **apar-kontrako (4)**

Oregintzan erabiltzen den gehigarria; ore-suspentsioetatik eta egostehaskeretatik apparra kentzeko balio du, apar-burbuilek poltsak eta zuloak sortzen baitituzte paper-orrian.

**es** antiespumante; desespumante

**fr** anti-mousse

**en** antifoam; defoamer

### **apea**

Ik. enborki

6

### **dispertsatziale (4)**

Produktu bat beste batean errazago sakabanatzeko erabiltzen den substantzia. Iztukatze-bainuak eta erretxinazko emultsioak prestatzeko erabiltzen da; adibidez, gehigarri gisa.

**es** agente de dispersión; dispersante

**fr** dispersant

**en** dispersant

7

### **enborki (4)**

Sin. apea (4)

Luzera uniformeko enbor-zatiak. Diametroa 20 cm-tik beherakoa dute gehienetan, eta, lantzeko lehen prestaketa gisa, zati txikitan ebakitzenean da.

**es** rollizo; apea; tronco

**fr** rondin

**en** bolt; block; juggle

8

### **ezpal (4)**

Zur-zati txikia, orea egiteko egokia, eta 10-30 mm-ko luzera eta 2-10 mm-ko lodiera izaten duena.

<b>es</b>	astilla
<b>fr</b>	coopeau
<b>en</b>	chip

**9****gehigarri (4)**

Paperaren edo prozesuaren ezaugarriak hobetzeko edo beste berri batzuk eransteko gehitzten den substantzia.

Iztukatu-lanetan erabiltzen diren sakabanatzaleak, koloragarriak, plastifikatzaileak, eta abar, adibidez.

<b>es</b>	aditivo
<b>fr</b>	additif
<b>en</b>	additive

**10****glukosa (4)**

Zelulosaren oinarrizko egitura-unitatea osatzen duen hexosa motako azukre bakuna.

<b>es</b>	glucosa
<b>fr</b>	glucose
<b>en</b>	glucose

**11****hemizelulosa (4)**

Zelulosaren antzeko polisakaridoa, zelulosarekin eta ligninarekin batera landareen zelula-paretak osatzen dituena.

<b>es</b>	hemicelulosa
<b>fr</b>	hémicellulose
<b>en</b>	hemicellulose

**12****hondakin-paper (4)**

Erabili edo eraldatu ondoren berriro ore bihurtu eta papergintzan erabiltzeko berreskuratzen den paper-edo kartoi-zatia.

<b>es</b>	papelote; papel usado
<b>fr</b>	vieux papier
<b>en</b>	waste paper

**13****itsasgarri (4)**

Bi gainazal elkarrekin itsasteko produktua.

<b>es</b>	adhesivo
<b>fr</b>	adhésif
<b>en</b>	adhesive

**14****karga (4)**

Paperaren fabrikazio-prozesuan sartzen den pigmentu minerala (zuria gehienetan), uretan disolbagaitza izaten dena.

<b>es</b>	carga
<b>fr</b>	charge
<b>en</b>	filler

**15****kola (4)**

Papera kolatzeko erabiltzen den substantzia.

<b>es</b>	agente de encolado; cola
<b>fr</b>	colle
<b>en</b>	size

**16****kolofonia (4)**

Pinuetatik ateratako bikeari trementina-esentzia destilazioz kenduz lortzen den errexina gogortua. Kola egiteko erabiltzen da.

<b>es</b>	colofonia
<b>fr</b>	colophane
<b>en</b>	colophony

**17****koloragarri (4)**

Kartoia edo paperari kolorea emateko erabiltzen den gaia. Normalean fintze-fasean gehitzten da koloragarria, baina posible da paper-makinako parte hezean gehitza ere, eta baita bukatutako paperaren gainazalean ere.

<b>es</b>	colorante
<b>fr</b>	colorant
<b>en</b>	dye

**13**

18

**lignina (4)**

Irregularki elkartzen diren fenilpropanozko unitatez osatutako konposatu polimerikoa. Agente zementatzailea da goi-mailako landareen zurezko egituretan.

**es** lignina

**fr** lignine

**en** lignin

**paper zahar**

Ik. hondakin-paper

**sakabanatzale**

Ik. dispersatzale

19

**udaberriko zur (4)**

Udaberriaren hasieran hazten den urteko eraztunaren zatia. Ez da izaten udazkeneko zura bezain trinkoa, eta hura baino argiagoa eta ahalagoa izaten da.

**es** madera de primavera; madera de invierno

**fr** bois de printemps

**en** early wood; spring wood

**udako zur**

Ik. udazkeneko zur

20

**udazkeneko zur (4)**

Sin. udako zur (4)

Udaren azkenean hazten den urteko eraztunaren zatia. Udaberriko zura baino trinkoagoa izaten da, ilunagoa eta gogorragoa.

**es** madera de otoño; madera de verano

**fr** bois d'été; bois d'automne

**en** late wood; summer wood

21

**urteko landare (4)**

Sortzen den urte berean loratzen, fruitua ematen eta hiltzen den landare zurik gabea. Adibidez, zerealak (lastoa), azukre-kanabera eta horrelakoak.

**es** vegetal anual

**fr** plante annuelle

**en** annual plant

22

**zelulosa (4)**

Zuretik, kotoitik, lihotik, kalamutik eta beste landare batzuetatik ateratzen den zuntz-substantzia; landareen elementu solidoa da (zelulak, zuntzak, basoak), eta paper-oreaa egiteko erabiltzen da. Erabilitako oinarritzko zelulosaren kalitatearen araberakoa izaten da orearen kalitatea.

**es** celulosa

**fr** cellulose

**en** cellulose

23

**zuraz besteko landare-zuntz (4)**

Zurik gabeko landareen zurtinetik, hostoetatik edo fruituetatik ateratzen den zuntza; kotoi-zuntza, adibidez.

**es** fibra no maderera

**fr** fibre non ligneuse

**en** non-wood plant fibre

## 2. OREGINTZA

24

### **adabegi-bereizgailu (4)**

Digestorearen irteeran erabiltzen den sare-maila handiko sailkagailua. Oreari adabegiak eta bestelako ezpal-zati handiak kentzeko da.

**es** separador de nudos; separanudos  
**fr** trieur de noeuds  
**en** knotted

25

### **alkali aktibo (4)**

Egosteko lixiba alkalino batek dituen osagai alkalinoen kontzentrazioa neurtzeko faktore bat. Sodio hidroxidoko kontzentrazioaren eta sodio sulfuroko kontzentrazioaren batura da, eta lixiba-litro bakoitzeko sodio hidroxido gramotan edo sodio oxido gramotan neurten da.

**es** álcali activo  
**fr** alcali actif  
**en** active alkali

26

### **alkali efektibo (4)**

Egosteko lixiba alkalino batek dituen osagai alkalinoen kontzentrazioa neurtzeko faktore bat. Egoste-lixibak duen soda-kantitate osoaren eta sodio sulfuro kantitatearen erdiaren batura da, eta lixiba-litro bakoitzeko sodio hidroxido gramotan edo sodio oxido gramotan neurten da.

**es** álcali efectivo  
**fr** alcali effectif  
**en** effective alkali

27

### **alkali total (4)**

Sodio hidroxidoaren ( $\text{OHNa}$ ), sodio sulfuroaren ( $\text{Na}_2\text{S}$ ), sodio karbonatoaren ( $\text{Na}_2\text{CO}_3$ ) eta sodio sulfatoaren ( $\text{Na}_2\text{SO}_4$ ) arteko batura, sodio oxido gisa ( $\text{Na}_2\text{O}$ ) adierazita.

**es** álcali total  
**fr** alcali total  
**en** total alkali

### **arazgailu zentrífugo**

Ik. hidrozikloí

28

### **azala kentzeko danbor (4)**

Tamaina handiko zilindro birakari horizontal batez osatutako makina, enborrei bueltaka mugiaraziz eta elkarren kontra edo pareten kontra marruskatzuz azala kentzeko balio duena.

**es** tambor descortezador  
**fr** tambour écorceur  
**en** barking drum

29

### **azala kentzeko makina (4)**

Orea egiteko erabili behar den zura azalik gabe uzteko makina.

**es** descortezadora  
**fr** écorceuse  
**en** debarker

30

### **bahe (4)**

Metalezko xafla zuloduna, zelulosa-zuntzak edo ezpalak tamainaren arabera bereizteko sailkagailuan erabiltzen dena.

**es** tamiz  
**fr** classeur à tamis; tamis  
**en** screen

31

**berreskuratze-galdara (4)**

Soda-oreta sulfato-oreta egiteko prozeduretan, lixiba beltza kontzentratua erre, produktu kimikoak berreskuratu eta lurruna sortu ahal izateko erabiltzen den galdara.

- es** horno de recuperación; caldera de recuperación  
**fr** four de récupération  
**en** recovery furnace; recovery oven; recovery boiler

32

**bisulfito-ore (4)**

Gai lignozelulosikoa funtsean sulfito-azido gatz bat duen lixiba batekin egosiz egindako ore kimikoa.

- es** pasta al bisulfito  
**fr** pâte au bisulfite  
**en** sulfite pulp

33

**CED biskositate (4)**

Kuprietalendiaminan disolbatutako zelulosaren biskositate-saiakuntza. Zelulosa-molekulen batez besteko luzera adierazten du, eta, beraz, polimerizazio-maila.

- es** viscosidad CED  
**fr** viscosité CED  
**en** CED viscosity

34

**danbor-iragazki (4)**

Danbor zulodun birakari bat duen iragazkia. Ore-suspentsioa loditzeko eta zuntz-geruza jarraitu bat egiteko da.

- es** filtro de tambor  
**fr** filtre à tambour  
**en** drum filter

35

**digestore (4)**

Sin. lixibagailu (4) Zuntzezko lehengaiak egosteko erreaktorea; presio eta temperatura jakinetan eta aurrez erabakitako osaera duen likido batean egosten dira.

- es** digestor; lejiadora  
**fr** lessiveur  
**en** digester

36

**egoste (4)**

Sin. lixibatze (4) Zuntz-lehengaiak produktu kimikoekin eta presio eta temperatura jakinetan tratatzea, papergintzako orea egiteko.

- es** cocción; lejado  
**fr** cuisson; lessivage  
**en** cooking; cook

37

**egosteko lixiba (4)**

Lixibagailuan erabiltzen den soluzio kimikoa, hau da, beroarekin konbinatuz, zur-ezpalen ia lignina guztia eta hemizelulosaren parte handi bat disolbatu eta zuntzak, hautsi gabe, libre uzten dituen likidoa.

- es** lejía de cocción  
**fr** lessive de cuisson; liqueur de cuisson  
**en** cooking liquor

38

**estrakzio alkalino (4)**

Zuritze-prozesuaren fasetako bat; pH altuarekin egiten da, eta lignina kloratuak disolbatu eta desegiteko izaten da.

- es** extracción alcalina  
**fr** extraction à l'alcali; extraction alcaline  
**en** alkaline extraction; caustic extraction

**ezpal-egite**

Ik. zatikatze

39

**ezpal-fintze (4)**

Zur-ezpalei fingailu batean landuz ematen zaien tratamendu mekanikoa, fingailuko ore mekanikoa lortzeko egiten dena.

- es** refino de astillas; refinado de astillas
- fr** raffinage de copeaux
- en** chip refining

40

**ezpal-makina (4)**

Sin. zura zatitzeko makina (4)  
Zura zatitu eta ezpalak egiteko makina.

- es** troceadora; astilladora
- fr** coupeuse à bois
- en** chipper

41

**fingailuko ore mekaniko (4)**

Zur-ezpalak edo zerrautsa diskozko fingailu batean landuz lortzen den ore mekanikoa.

- es** pasta mecánica de refino
- fr** pâte mécanique de raffineur
- en** refiner mechanical pulp

42

**garbiketa (4)**

Produktu kimikoen hondarrak eta orea egostean, zuritzean eta beste tratamendu kimikoren bat aplikatzean disolbatu diren beste substantzia batzuk desplazatzea eta iragaztea. Urarekin egin ohi da.

- es** lavado
- fr** lavage
- en** washing

43

**garbitzeko aska (4)**

Orea garbitzeko makina; ore-suspensio batean partzialki murgiltzen den danbor birakari xurgatzale batez osatzen da, funtsean.

**es** pila lavadora

**fr** pile laveuse

**en** washer; vacuum washer

44

**garbitzeko danbor (4)**

Garbitzeko askako zilindro birakari xurgatzalea. Metalezko edo plastikozko oihal batekin estalia dago, eta, oreaten murgilduz, etengabe likidoa ateratzten joaten da.

- es** tambor de lavado; tambor lavador
- fr** tambour laveur
- en** washer drum

45

**hidroziklo (4)**

Sin. arazgailu zentrífugo (4)  
Paper-oreari harea, oxido-partikulak, azal-puskak eta bestelako materia arrotzak kendu eta sailkatzeko tresna; indar zentrífugoz eta tangentzialez lan egiten du, zuntz-suspensioak zurrunbiloan azkar mugituz.

- es** hidrociclón; depurador centrífugo
- fr** épurateur tourbillonnaire; hydrocyclone
- en** hydrocyclone; cleaner; vortex cleaner

46

**hondakin-lixiba (4)**

Orea egosi ondoren edo zuritu ondoren geratzen den likidoa.

- es** lejía residual; lejía agotada
- fr** lessive résiduaire; lessive épuisée
- en** waste liquor; spent liquor

47

**hostozabalen zur (4)**

Hostozabaletatik ateratzen den zura. Oso trinkoa eta zuntz estuko da.

- es** madera de frondosa
- fr** bois feuillu
- en** hardwood

48

**hutseko garbigailu birakari (4)**

Orea etenik gabe garbitzen eta loditzen joateko gailua.

- es** lavador de vacío rotatorio
- fr** laveur rotatif sous vide
- en** rotary vacuum washer

49

**izpitze (4)**

Zura edo landareak zatikatu eta zuntza aske uztea, baliabide mekanikoak erabiliz (substantzia kimikoen laguntzaz ere bai, inoiz).

- es** desfibrado
- fr** défibrage
- en** defibration; defibering; grinding

50

**jalkin (4)**

Bakterioen, onddoen edo algen eraginez sortzen den material lirdingatsua, ore-suspensioak eta ur zuriak ukitzen dituzten gainazaletan azaltzen dena. Kontrolatzan ez bada, arazoak sortzen ditu papergintza-prozesuan eta kalitateean.

- es** poso; limo
- fr** dépôt; vase
- en** slime

51

**kare-labe (4)**

Kare-lohiak erretzeko labe tubular eta birakaria.

- es** horno de cal
- fr** four à chaux
- en** lime kiln; lime-burning kiln

52

**kare-lohi (4)**

Nagusiki, lixiba berdeen kaustifikazioan eratutako kaltzio karbonatoa duen lohia.

- es** lodo de cal; lodo calizo; fango de cal
- fr** boue de chaux
- en** lime mud

53

**kaustifikazio (4)**

Lixiba berdeari kaltzio hidroxidoarekin (kare hilarekin) ematen zaion tratamendua. Lixiba berdearen sodio karbonatoa sodio hidroxido bihurtzeko egiten da.

- es** caustificación
- fr** caustification
- en** causticizing

54

**kiskaltze (4)**

Oso temperatura handian berotzea; adibidez, kare-lohia kare bizi bihurtzeko egiten den eragiketa.

- es** calcinación
- fr** calcination
- en** calcination

55

**klarifikagailu (4)**

Partikularik astunenak disoluziotik jalkiz bereizteko tanga. Lixiba berdeen eta lixiba zurien klarifikagailuak eta ingurumena kontrolatzeko klarifikagailu primarioak eta sekundarioak daude.

- es** clarificador
- fr** clarificateur
- en** clarifier

56

**klorazio (4)**

Ore kimikoak zuritzeko prozesuaren lehenengo fasea. Kloroligninak sortzen dira fase horretan.

- es** cloración
- fr** chloruration
- en** chlorination

57

**konifero-zur (4)**

Hosto iraunkorreko zuhaitzetatik ateratako zura. Zuntz bigunekoa da.

- es** madera de conífera
- fr** bois de conifère; bois de résineux
- en** softwood

58

**konpresio-zur (4)**

Koniferoen adarren azpiko aldeko zura. Lignina gehiago izaten du, ilunagoa izaten da, eta normala baino gogorragoa.

**es** madera de compresión

**fr** bois de compression

**en** compression wood

59

**korrontearen kontra garbitze (4)**

Garbigailuetan iragazteko erabili den ura etapa batetik bestera desplazatuz garbitzea. Ura ore garbienetik hasi eta ore zikinenerantz desplazatzen da, bidean orea garbituz.

**es** lavado a contracorriente

**fr** lavage à contre-courant

**en** counter-current washing

60

**kraft ore (4)**

Sin. sulfato-ore (4)

Lehengaia funtsean sodio hidroxidoa, sodio sulfuroa eta, inoiz, beste osagai batzuk dituen lixiba batekin egosiz egindako ore kimikoa.

**es** pasta al sulfato; pasta kraft

**fr** pâte au sulfate; pâte kraft

**en** sulfate pulp; kraft pulp

61

**lasto-ore (4)**

Zerealen lastoarekin eginiko paper-orea.

**es** pasta de paja

**fr** pâte de paille

**en** straw pulp

62

**latentzia (4)**

Banakako zuntz askok fingailuetako tratamendu mekanikoan, batez ere ore termomekanikoa egiten denean, hartzen duten forma kiribildu eta kizkurtua.

**es** latencia

**fr** obscurité

**en** latency

63

**lixiba (4)**

Zuntzak egosteko, zuritzeko eta berreskuratzeko prozesuetan erabiltzen diren erreaktibo kimikoen ur-disoluzioetako bakoitza.

**es** lejía; licor

**fr** lessive; solution

**en** liquor

64

**lixiba beltz (4)**

Soda-prozeduratik eta kraft-prozeduratik geratutako hondakin-lixiba, orea garbitzean berreskuratzen dena.

**es** lejía negra; licor negro

**fr** lessive noire; liqueur noire

**en** black liquor

65

**lixiba berde (4)**

Sulfato-orea egitean, oraindik karerik nahasi gabe dagoen eta, beraz, kaustiko bihurtu ez den lixiba.

**es** lejía verde

**fr** lessive verte

**en** green liquor

66

**lixiba zuri (4)**

Sulfato-orearen prozesuan egosteko lixiba gisa erabiltzen den sodio hidroxidozko eta sodio sulfurozko disoluzioa.

**es** lejía blanca

**fr** lessive blanche; liqueur blanche

**en** white liquor

**lixibagailu**

Ik. digestore

**lixibatze**

Ik. egoste

67

**lurrungailu (4)**

Hondakin-lixibak kontzentratzeko gailua, elementu kimikoak eta beroa berreskuratzeko prozesuan erabiltzen dena.

- es** evaporador
- fr** évaporateur
- en** evaporator

68

**lurruntze (4)**

Zurari, enbor osoari edo ezpalei ematen zaien tratamendua. Zurak duen airea aterarazi eta egosteko likidoa errazago sartzen uzteko izaten da, askotan, lurruntzea; beste batzuetan, berriz, zura biguntzeko, ondoren emango zaion tratamendu mekanikorako prestatzeko.

- es** vaporizado
- fr** étuvage
- en** steaming

69

**ore araztu (4)**

Araztu edo sailkatu ondoren geratzen den orea.

- es** pasta depurada
- fr** pâte épurée
- en** accepted stock

70

**ore erdikimiko (4)**

Tratamendu kimiko bat eta tratamendu mekaniko bat konbinatuz lortutako orea.

- es** pasta semiquímica
- fr** pâte mi-chimique
- en** semi-chemical pulp

71

**ore erdizuritu (4)**

Tarteko zuritasun-maila bateraino zuritutako orea (espektro urdinarekiko islagarritasun-faktorea).

**es** pasta semiblanqueada

**fr** pâte mi-blanchie

**en** semi-bleached pulp

72

**ore gordin (4)**

Sin. zuritu gabeko ore (4)

Egosi ondoren kolorea zuritzeko tratamendurik izan ez duen orea.

- es** pasta cruda; pasta sin blanquear
- fr** pâte écrue
- en** unbleached pulp

73

**ore kimiko (4)**

Lehengaiaren zelulosaz bestelako osagaien parte handi bat egoste edo lixibatzetik izeneko tratamendu kimiko batekin ezabatuz lortzen den orea.

- es** pasta química
- fr** pâte chimique
- en** chemical pulp

74

**ore kimiko-mekaniko (4)**

Lehengai lignozelulosikoari aurrez tratamendu kimikoa aplikatuz lortutako ore mekanikoa.

- es** pasta químico-mecánica; pasta CMP
- fr** pâte chimico-mécanique
- en** chemi-mechanical pulp

75

**ore mekaniko (4)**

Zuretik edo landareetatik abiatuz, prozesu mekaniko hutsez egiten den orea.

- es** pasta mecánica
- fr** pâte mécanique
- en** mechanical pulp

76

**ore termomekaniko (4)**

Zur-ezpalak lurrunez tratatuz, temperatura altuan finduz eta, azkenean, presio atmosferikoan berriz ere finduz lantzen den ore mekanikoa.

<b>es</b>	pasta termomecánica; pasta TMP
<b>fr</b>	pâte thermomécanique
<b>en</b>	thermo-mechanical pulp

**77****ore zuritu (4)**

Osagaien kolorea kentzeko tratamendua jasan duen orea.

<b>es</b>	pasta blanqueada
<b>fr</b>	pâte blanche
<b>en</b>	bleached pulp

**78****orearen airegabetze (4)**

Oreari airea kentzea; hutsa egindako ontzi batean egiten da lan hori.

<b>es</b>	desaireación de la pasta
<b>fr</b>	désaération de la pâte
<b>en</b>	deaeration of stock

**79****polimerizazio-maila (4)**

Ore-lagin bateko zelulosa-molekula bakoitzean dagoen batez besteko glukosa-unitateen kopurua. CED biskositate-saiakuntza baten bidez neurtzen da.

<b>es</b>	grado de polimerización
<b>fr</b>	degré de polymérisation
<b>en</b>	degree of polymerization

**80****sailkatze (4)**

Paper-orea egiteko prozesuan, lehengaia, neurri jakineko zuloetatik pasaraziz, tamainaren araberako bi sailetan edo gehiagotan bereiztea.

<b>es</b>	clasificación
<b>fr</b>	classage
<b>en</b>	screening

**81****soda-ore (4)**

Lehengaia sodio hidroxidoa duen lixiba batekin tratatuz egindako paper-orea.

<b>es</b>	pasta a la soda
<b>fr</b>	pâte à la soude
<b>en</b>	soda pulp

**sulfato-ore**

Ik. kraft ore

**82****sulfidotazun (4)**

Lixiba batek duen sodio sulfuroaren kontzentrazio erlatiboa, errektibo guztia kontuan izanda neurten dena.

<b>es</b>	sulfidez; contenido en sulfuro
<b>fr</b>	sulfidité
<b>en</b>	sulfidity

**83****tentsio-zur (4)**

Adarren eta enbor okertu eta inklinatuengoa goiko aldeko zura. Lignina gutxiago izaten du zur horrek, eta argiagoa eta dentsitate txikiagokoa izaten da.

<b>es</b>	madera de tensión
<b>fr</b>	bois de tension
<b>en</b>	tension wood

**84****zatikatze (4)**

Sin. ezpal-egite (4)

Orea egin aurretik zura ezpal bihurtzeko egiten den eragiketa. Zura zatitzeko makinarekin egiten da.

<b>es</b>	troceado; astillado
<b>fr</b>	mise en copeau; fragmentation
<b>en</b>	chipping

**85****zelulosa-zuntz (4)**

Zurari egoste- eta zuritze-prozesuetan zuntzaz bestelako osagaiak kendu ondoren geratzen den gaia.

<b>es</b>	fibra de celulosa
<b>fr</b>	fibre cellulosique
<b>en</b>	cellulosic fiber

86

**zuntz-izpigailu (4)**

Zur-enborrak zatitu eta aldi berean urarekin bustiz biraka dabilen hortz baten kontra sakatuz zuntzak askatu eta bereizten dituen makina.

**es** desfibrador

**fr** défibreur

**en** defibrator; grinder

87

**zuntz-luzera (4)**

Ore bateko edo ore-suspensio bateko zuntzen batez besteko neurria.

**es** longitud de fibra

**fr** longueur de fibre

**en** fiber length

88

**zuntz-sailkagailu (4)**

Paper-oreoa egiteko prozesuan lehengaia, neurri jakineko zuloetatik pasaraziz, tamainaren araberako bi sailetan edo gehiagotan bereizten duen gailua.

**es** clasificador de fibras

**fr** classeur à fibres

**en** fiber classifier

89

**zuntzexka (4)**

Zelulosa-zuntzen paretatik askatutako izpiak.

**es** fibrilla

**fr** fibrille

**en** fibril

90

**zur-ore (4)**

Zuraren zuntzez eginkiko orea. Ore mekanikoa adierazteko erabiltzen da gehienetan.

**es** pasta de madera

**fr** pâte de bois

**en** wood pulp

**zura zatitzeko makina**

Ik. ezpal-makina

91

**zuriketa (4)**

Sin. zuritze (4)

Oreari bere gai koloragarriak kendu edo gutxitu eta zuriago bihurtzeko egiten zaión tratamendua.

**es** blanqueo

**fr** blanchiment

**en** bleaching

**zuritu gabeko ore**

Ik. ore gordin

**zuritze**

Ik. zuriketa

92

**zuritze-dorre (4)**

Orea zuritzeko faseetako batean erabiltzen den tanga zilindriko bertikala.

**es** torre de blanqueo

**fr** tour de blanchiment

**en** bleaching tower

93

**zuritze-gaitasun (4)**

Ore batek zuritzeko duen gaitasun erlatiboa.

**es** aptitud al blanqueo; blanqueabilidad

**fr** aptitude au blanchiment

**en** bleachability

94

**aire bidezko lehortze (4)**

Papera lehortzeko metodo bat: aire-korronte mugikor batekin kontaktuan jarriz lehortzen dira orriak. Paper-banda, normalean, aire beroarekin kontaktuan jarriz lehortzen da, areto batean edo tunel batean.

**es** secado al aire

**fr** séchage à l'air

**en** air-drying

### 3. PAPERGINTZA

95

#### **aire-labana (4)**

Iztukatu berria den gainazal hezeari soberako geruza kentzeko aire-zurrusta mehe eta laua, neurriz aldagarria den ezpain artekatu batetik ateratzen dena.

- es** labio soplador; cuchilla de aire
- fr** lame d'air
- en** air knife

96

#### **aire-labana bidezko iztukatze (4)**

Paperezko edo kartoizko orri jarraitu bat iztukatzeko prozedura: makinaren zabalera guzia hartzen duen arteka batetik ateratzen den aire konprimatuzko korronte batekin banatzen eta zabaltzen da iztukua.

- es** estucado con labio soplador
- fr** couchage par lame d'air
- en** air knife coating; air jet coating

97

#### **arrabol bidezko iztukatze (4)**

Paperezko edo kartoizko orri jarraitu bat iztukatzeko prozedura: paperaren noranzko berean edo kontrakoan ibiltzen den arrabol baten bidez ematen zaio orriari nahi den iztuku-kantitatea.

- es** estucado con rodillos
- fr** couchage par rouleaux
- en** roll coating

98

#### **arrabol gidari (4)**

Mugitzen ari den paper-bandari eutsiz mugitzen den arrabola.

- es** rodillo-guía; rodillo conductor
- fr** rouleau guide; rouleau conducteur
- en** leading roll

99

#### **arrabol xukatzaire (4)**

Metalezko oihal batekin estalitako arrabola, paper-makinako formazio-oihalean paper-bandaren gainean ezartzen dena.

- es** rodillo desgotador
- fr** rouleau égoutteur
- en** dandy roll

100

#### **aska holandar (4)**

Papergile holandarrek XVII. mendean erabiltzen hasitako fingailua. Platina bat eta zilindro edo alfer bat ditu, eta zuntzari tratamendu mekaniko bat aplikatzen zaio, orea zirkularazten den bitartean.

- es** pila holandesa; holandesa
- fr** pile hollandaise
- en** hollander; hollander beater

101

#### **azaleko kolatze (4)**

Paper-orri formatuari gainetik itsasgarriak gehitzea; likidoak (adibidez, inprimategiko tintak) barrura sartzen ez uzteko edo azalean zabaltzen ez uzteko erresistentzia gehitzeko egiten da.

- es** enculado superficial; enculado externo
- fr** collage en surface
- en** surface sizing

102

#### **bala (4)**

Paper-ore solidoarekin orri-multzo edo mataza prentsatu modura osatzen den fardel edo pakete bakoitza.

- es** bala; fardo
- fr** balle (de pâte)
- en** bale; pulp bale

103

**biribilkagailu (4)**

Behin-behineko bobina eginez, azken fasean paper-orria bere zabalera osoan biribilkatzeko aukera ematen duen paper-makinaren zatia.

**es** enrolladora

**fr** enrouleuse

**en** reel

104

**biribilkatze (4)**

Paper-banda bat biltzea, behin-behineko paper-bobina eginez.

**es** enrollado

**fr** enroulage

**en** reeling

105

**bobinatzeko makina (4)**

Paper-makinaren azkeneko sailean egindako paper-bobina behin betiko bobina bihurtzen duen makina.

**es** bobinadora

**fr** bobineuse

**en** winder

**bostehuneko**

Ik. resma

106

**burualdeko arrabol (4)**

Diametro handiko arrabola, orea oihalaren gainera bota behar denean doi-doi mahai lauko oihalaren noranzkoa aldatzen duena.

**es** rodillo cabecero

**fr** rouleau de tête

**en** breast roll

107

**deflektore (4)**

Mahai lauan, ura xukatzeko arrabolen aurretik dagoen xafla finkoa; paperari kentzen zaion ura kanpora bota eta paper-formazioari kalterik egiten ez uzteko izaten da.

**es** deflector

**fr** déflecteur

**en** deflector

108

**despastillagailu (4)**

Oreari zuntzak desegin ondoren geratzen zaizkion pinportak edo zuntz-sortak desegiteko gailua.

**es** despastillador

**fr** dépastilleur

**en** deflaker

109

**despastillatze (4)**

Orea zuntz-askagailutik pasatu ondoren geratu diren zuntz-pinportak edo zuntz-sortak desegitea.

**es** despastillado

**fr** dépastillage

**en** deflaking

110

**diskozko fingailu (4)**

Bi edo hiru diskoz osatutako fingailua; diskoak bata finkoa eta bestea birakaria izan daitezke, edo biak kontrako noranzkoan biratzen direnak, edota bi finko eta haien artean mugitzen den birakari bat.

**es** refinador de disco; refino de discos

**fr** raffineur à disques

**en** disk refiner

111

**distira handiko iztukatze (4)**

Iztukagailuan bertan gertatzen den prozesua, papera lehortu eta aldi berean distira ematen diona. Horretarako, papera zilindro kromatu bero batean zehar pasarazten da.

- es** estucado de alto brillo  
**fr** couchage à haut brillant;  
          couchage au glacis  
**en** cast coating

112

**distira-emate (4)**

Paperari akabera egokia emateko faseetako bat, prentsatze mekaniko bidez eta lehortze-eragiketaz paperari distira ematen diona.

- es** abrillantado  
**fr** glaçage  
**en** glazing

113

**ebakigailu birakari (4)**

Paper-bobina zeharka ebakitzeko makina edo makina-zatia.

- es** cortadora rotativa  
**fr** coupeuse rotative  
**en** rotary cutter

114

**erreferentzia-lagin (4)**

Paper-makinako fabrikazioetan ateratako paperen adierazgarri diren laginetako bakoitza. Fabrikan gordetzen da, eta, behar izanez gero, bezeroari bidal dakiode.

- es** muestra de referencia  
**fr** feuille échantillon type  
**en** outturn sheet

115

**ertz-ebakigailu (4)**

Ura presioan botatzen duten ur-zurrusta txikietako bakoitza. Paper-makinako oihalaren bi aldeetara jartzen dira paper-orri hezea nahi den zabalerara mozteko.

- es** cortadora de borde; chorro de corte  
**fr** bordeuse  
**en** edge cutter

116

**eskula bidezko iztukatze (4)**

Paperezko edo kartoizko orri jarraitu bat iztukatzeko prozedura: iztukua eskulekin banatzten da; eskula batzuk finkoa izaten dira, eta beste batzuk oszilatzaleak, paperaren zeharkako norabidean.

- es** estucado con cepillo  
**fr** couchage à la brosse  
**en** brush coating

117

**fabrikazio-hondakin (4)**

Papergintzako prozesuaren edozein fasetan kentzen den eta berriro orearekin nahasteko erabili ohi den paper- edo kartoi-zatia. Fase lehorrean hautsitako zatiak eta fase hezean hautsitako zatiak bereizten dira.

- es** recorte de fabricación; roto de fabricación; desecho de fabricación  
**fr** cassé de fabrication  
**en** broke

118

**fabrikazioko mahai lau** (4)

Mahai lauko makina baten parteetako bat; oihal amaigabe metalikoa edo sintetikoa bat du osagai nagusia, eta oihal horren gainean hasten da, ura galduz, paper- edo kartoi-banda formatzen.

**es** mesa plana de fabricación

**fr** table plate

**en** fourdrinier wire part

119

**feltro** (4)

Paper-makinako jantziaren ehun-zinta amaigabeara. Orriari prentsan kentzen zaion ura xurgatzeko, artean hauskorra den orria garraiatzeko eta paper-orria lehorgailu baten kontra aplikatzeko izaten da.

**es** fieltro

**fr** feutre

**en** felt

120

**fibrilazio** (4)

Zuntzei tratamendu egoki bat aplikatzen zaienean -fintzen direnean, adibidez- zuntz-pareta hautsi eta zuntzexkak askatzea.

**es** fibrilación

**fr** fibrillation

**en** fibrillation

121

**fingailu** (4)

Zuntzak uretan tratatzeko eta ezaugarri berezi batzuk emateko makina. Disko bidez, kono finko bidez edo errotore koniko bidez lantzen dira zuntzak, gehienbat. Diskozkoa ore mekanikoa egiteko ere erabiltzen da.

**es** refinador; refino

**fr** raffineur

**en** refiner

122

**fingailu koniko** (4)

Ontzi koniko baten barruan biratzen den errotore koniko batez osatzen den fingailua.

**es** refinador cónico; refino cónico

**fr** raffineur conique

**en** conical refiner

123

**fintze-gradu** (4)

Ore-zuntzak fintze-prozesuan edo antzeko beste tratamendu mekanikoetan lortzen duen funtasuna neurtzen duen unitatea.

**es** grado de refinado

**fr** degré de raffinage

**en** freeness; degree of beating

124

**forma biribil** (4)

Formagailu zilindrikoak; formazio-oihal batekin estalia egoten da, eta, zuntz-suspensio batean partzialki murgilduz, paper-orria formatzeko erabiltzen da.

**es** forma redonda

**fr** forme ronde

**en** cylinder mold

125

**formagailu** (4)

Paper-orria formatzeko tresna.

**es** formador

**fr** formeur

**en** former

126

**formatze** (4)

Ore-suspensioak ura galtzean eta paper-orri heze bihurtzean datzan prozesua.

**es** proceso de formación; formación

**fr** mise en bande; mise en feuille

**en** forming

127

**formazio-oihal (4)**

Paper-makinako oihal metaliko edo sintetikoa, gainean paper-banda formatzeko balio duena.  
**es** tela de formación  
**fr** toile de formation  
**en** forming fabric

128

**gida-soka (4)**

Paper-makinaren lehortzeko atalean paper-orria pasarazteko erabiltzen den sistema. Zilindro lehortzaileen aurreko aldean dauden arteketatik bi soka pasatzen dira; paper-orriaren muturra bi soka horien tartean jarri eta sokei lotuta pasarazten da lehortzeko ataletik.  
**es** cuerda para pasar la hoja; cuerda de conducción  
**fr** câble d'embarquement; câble pour passer la feuille  
**en** rope carrier

129

**guillotina (4)**

Hortz sendo batez hornitutako makina, kolpe bakar batekin paper-orri askoko multzo bat ebakitzeko gai dena.  
**es** guillotina  
**fr** coupeuse à guillotine; massicot  
**en** guillotine cutting machine; trimmer

130

**guillotinatze (4)**

Paper-edo kartoi-orri bat edo gehiago hortz zurrun batekin ebakitza.  
**es** guillotinado  
**fr** massicotage; refente de feuilles  
**en** guillotining

131

**gomaztatze (4)**

Paperezko edo kartoizko orri bati aurpegi batetik, aurpegi guztian edo zati batean, itsasgarri-geruza bat ematea, itsasgarría izan dadin.  
**es** engomado  
**fr** gommage  
**en** gumming

132

**gutziz lehor (4)**

